

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



MACC LENNAN FUNTSA. MUSKIZEKO UDALEKO ARGAZKI ARTXIBOA

EMAKUMEAK MEATZARITZAKO LAN GOGORRETAN

Meatzaritzan emakumeak egindako lana oso garrantzitsua izan da. Etxeko lanaz eta zaintzaz aparte, maiz beste-lako enpleguak ere bilatu beharra izaten zuen emakumeak familiaren bizi baldintzak hobetzeko: besteen etxeak garbitzea, meatzeetan mineralak garbitzea, baztertutako mineralak miatzea, mineral saskiak garraiartzea... Lan gogorrek egokitzen zitzaizkien askotan emakumeei, eta, gainera, jasotzen zituzten soldatak gizonen jasotzen zituztenen azpitik izaten ziren beti. Egile ezezaguneko argazki hau 1900. urte ingurukoa da eta Pobeñako zamatzeko tokian dago eginda, Muskizen (Bizkaia). Irudiak ondo jasotzen du emakumeek egin behar izaten zituzten lanen gogortasuna. Irudian emakumeak pikotxarekin minerala txikitzen ikusten dira, El Pobaleko burdinolara eramain baino lehen. Argazkia Macc Lennanen funtsekoa da. Jatorri eskoziarreko enpresaria zen Macc Lennan, Bizkaian hainbat meatzeren gidaritza izan zuena. Gaur egun argazki funts hori Muskizko Udalean dago.